

**DGA, 159-160 (DGAZ, 137-138)**

**[GUTXI GARA EUSKALDUNOK]**

Gutxi gara euskaldunok,  
gutxiago gara euskaraz dagigunok.  
Isilduz goaz euskaldunok  
eta euskara isilduz doa  
erdarak itota.  
Alferrik gara euskaldun  
euskararik ez badarabilgu.  
Alferrik gara euskaldun  
euskaraz ez baldin bagara baliatzen.  
Alferrik gara mintzatzen  
euskara goratuz erdara ederrean.  
Gezurti gara, ziniko gara  
ezertarako ez dugun euskara  
laudatzen dugunean  
Nor nahi dugu engainatu?  
Ez gehiago apologiarik,  
ez gehiago sarkasmorik.  
Inork ez du lau xemeikoren ahaleginik  
euskaragatik egin nahi.  
Hauxe da egia  
ta hauxe da begia:  
ikusten dugunaren  
bistako agiria: hil-zauriz zaurituta  
bertan behera eta isilduz  
                            zuriz jantzita zuriki  
                            hiltzera daramagun  
lotsari estalia.  
Aurrera doa segida  
kultur ministrariak,  
sigla ezberdinetako  
politiko-saila  
Amigos del País eta beste  
jakintza erakundetako jende  
zaldun eta oinezko  
zibil eta erlijioso  
larrosa zurien petaloak botaz.